

**“GURE BERBIE EUSKERAZ”  
HITZARMENGINTZA EGITASMOA-2013**



## **AURKIBIDEA:**

### **1.- AURREKARIAK**

- 1.1.- Aurrekariak (merkataritza eta enpresa arloa)
- 1.2.- Aurrekariak (elkarteen arloa)

### **2.- HELBURUAK.**

### **3.- EGITASMOAREN OINARRIAK.**

- 3.1.- 2013an beteko diren zeregin nagusiak
- 3.2.- Hitzarmenkide berriak eta zerbitzu iraunkorra
- 3.3.- Jarduerak nork burutuko dituen

### **4.- XEDE TALDEAK**

### **5.- KRONOGRAMA.**

### **6.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**

### **7.- AURREKONTUA**

## **ERANSKINAK:**

- 1. **eranskina:** Alkarbidek koordinatzen duen Kirol lan-mahaiak egindako txosten proposamena (Kirol Zuzendaritzara eta Euskara Zuzendaritzara bideratuak).
- 2. **eranskina:** Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzen esleipena (2012koa).
- 3. **eranskina:** Berripapera (19. alea)

## **1.- AURREKARIAK**

### **1.1.- Aurrekariak (merkataritza eta enpresa arloa)**

1993.ean eratu, orduan hasiera eman eta hiru urteko lehenengo fase batean garatzeko taxutu zen egitasmoari ekin diogu zintzo gaur arte. Beraz, hemeretzi urte bete ditugu merkataritza arloa jorratzen, urteak pasatu ahala lan-sistema bat finkatu eta hobetzea ekarri diguna eta bidean beste esparru batzuetan (enpresetan, elkarteetan) ekiten hasteko eredugarri izan duguna.

2001ean merkataritza arlorakoa bideratuta ikusten genuen neurrian, **enpresa mundua lantzen hastea beharrezko jo genuen**, hurrengo urteetarako esparru horrekiko jokabideak finkatu asmoz. Bidea errazago egin zaigu enpresa munduan, arestian esan bezala merkataritzan urteetan taxutu eta egokitutako eredia izan dugulako.

Aipatu behar merkataritza eta enpresetara zuzendutako kanpainaren segimendu lanarekin lortu nahi dugun helburu nagusia: merkataritza eta enpresetako esparruan jokoan sartzen diren guztiekin harremanak landu eta ahal den neurrian merkatal zirkulu osoa kanpainan integratu, hau da, hornitzaile, saltzaile eta erosleekin (batez ere erakunde publiko, kirol eta kultur elkarte eta ikastetxeekin ditugun loturei probetxua atereaz) harremanak lantzea.

Bestalde, kanpaina honen bitartez, urte bakoitzean aurreikusi egiten da hitzarmenkide berriak erakartzea, sinatu bakoien artean ereduzkoak hautatu eta harreman zuzena landuz. Gero ere, zerbitzua eskaintzerakoan, harreman pertsonala da kanpainaren zutabe nagusi. Esan behar, hitzarmenkide kopuruak gora egiten duela urtetik urtera, azken hiru urteetan merkataritzan eta enpresa esparruan atea itxi dutenak salbu.

### **1.2.- Aurrekariak (elkarteen arloa)**

Elkarteei begirako hitzarmengintzaren nondik-norakoak argitzeko, Gernika-Lumoko Udalak 2003ko apirilaren 30ean onartu zuen Plan Estrategikoaren atarira jo behar dugu zuzen. Hagatik, hona hemen, literalki, **udalak 2002an burutu zuen diagnostikoan jasotzen zena:**

Bestalde, interesgarria deritzogu **Ainoa Etxebarria Andreak 2001ean egindako diagnostiko-lan erraldoiaren (Euskararen presentzia eta ausentzia Gernika-Lumon) emaitza batzuk** hemen islatzea, kultura, aisia eta kirol esparruei dagokienean batik bat:



**“Euskaldun portzentajeen batz bestekoak kultura / aisia elkarteetan (%)”**


| Adin taldeak | Euskaldunak %<br>(batezbestekoa) |
|--------------|----------------------------------|
| HAURRAK      | %93                              |
| GAZTEAK      | %88                              |
| HELDUAK      | %84                              |
| ADINEKOAK    | %90                              |

Iturria: Ainoa Etxebarriak jasoa (2001)

\* Behin-behineko datuak eta hurbilketaak.

Parte hartzaile guztiak, taldekideen %100 euskaldunak diren elkarteak kantu, bertso, dantza, musika eta ekologia arduratzen direnek osatzen dute. %80tik gora euskaldunetz osotuta daudenak irteera, jaialdi, hitzaldi eta abarrekoko antolatzen dituztenak. Euskaldun portzentajea horretara heltzen ez diren elkarteak irati saio eta historialaritzak lantzen dituztenak dira.

**Hizkuntza erabilera kultur elkarteetan (%)**



Iturria: Ainoa Etxebarriak jasoa (2001)

Normalean gazteleraz %20an entzungo da eta euskeraz edo elebitan %80 inguruk egiten dute (elkarteak). Baina badu gorabeherarik. Kide edo partaide guztiak euskaldunak direnean, euskara erabiltzeko tendentzia altuagoa da, bai harreman informaletarako, bai prestatutako ekintzetan. Gaztelerarekin tartekatzen dituzten ekitaldiak mahai inguru eta antzekoetan hizlaria erdalduna bada. Partaideren bat erdalduna denean gaztelerarako joera gehiago dago, nahiz eta gure ustetan ez da horrenbestekoa. Hau da, kide guztiak euskaldunak ez direnean euskara eta gaztelera, hizkuntza biak erabiltzen direla dioskute elkarteetako arduradunek eta antzeko proportzioan gainera, erdi eta erdi. Batzutan ahozko harremanak eta ekitaldiak euskerazkoak izan arren, bilera edo idatzizko formuletan gaztelera gailentzen da.



### Euskaldun portzentajeen batz bestekoak kirol elkarteetan (%)


| Adin taldeak | Euskaldunak %<br>(batezbestekoa) |
|--------------|----------------------------------|
| HAURRAK      | %90                              |
| GAZTEAK      | %81                              |
| HELDUAK      | %60                              |
| ADINEKOAK    | ❖                                |

Iturria: Ainoa Etxebarriak jasoa (2001)

\* Behin-behineko datuak eta hurbilketazkoak

*Haur eta gazteen artean euskaldunen portzentaia altua da. Helduengan, ordea, nahiko bajatzen da. Horrek elkarteen funtzionamenduan eragin nabarmena du, entrenatzaile eta monitore asko erdaldunak direlako. Kirol elkarteetan jarduera pilota, futbola, saskibaloia, mendi irteera edota auto lasterketekin lotutakoa da, batik bat.*

### Hizkuntza erabilera kirol elkarteetan (%)



*Euskeraz %33tan entzungo ditugu entrenamendu, partidu edo antolatutako ekintzetan. %45 gazteleraz eta %22k elebitan. Euskera hutsean edo elebitan egindako erabilera %55ekoa da. Baina datu hauek irakurtzean kontuan izan behar da batezbesteko orokorrak direla. Ez dakigu zenbat pertsona diren euskera erabiltzen dutenak edo zenbatek egiten duen gazteleraz.”*

Horiek guztiak kontuan hartuta, 2004an elkartei begirako hitzarmengintza jarri genuen abian, “Geure berbie euskeraz” deitura hartu zuena.



**2007an guretzat egokipen garrantzitsua gauzatzea erabaki eta egin egin zen,** administratiboki eta lan-sistemari zegokionean hobetzeko bidea zekarrena: **banatuta genituen bi egitasmo bateratzea,** hau da, bata Merkataritza/enpresetarako kanpaina eta, bestea, elkarteei begirakoa. 2008an egonkortu egin zen jokabide hori eta egitasmoari jarraipena egitea erraztu digu ordutik ona.

Oinarri nagusia, atal guztietarako (enpresak, merkaritza, elkarteak), “hitzarmena” dugu, Gernika-Lumoko Udalarekin agente bakoitzak sinatzen duena. Gero, atal bakoitzak, merkataritza, enpresa edo elkarte arloa izanda, bidezko egokipenak ditu, baina lan-sistema berberari eusten zaio: harreman zuzena (bisitaldiak), zerbitzu iraunkorra,...

## **2.- HELBURUAK**

Helburuak zehazterakoan, Euskararen sustapenerako Gernika-Lumoko Plan Estrategikoaren ildotik 2013ko Kudeaketa Planak aintzat hartu dituen esparru, neurri eta ekintzak agertu behar hemen:

- **2. Helburu estrategikoa.- Euskararen erabilera:** euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza.

### **5. Lan mundua**

#### **5.1. Lan munduan euskararen erabilera handitu.**

##### **5.1.1. SENSIBILIZAZIOA**

5.1.1.1. Herrian eragin handia duten enpresekin banan banako elkarriketak egin, eta azaldu euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden...

##### **5.1.2. KOMUNIKAZIOA**

5.1.2.1. Enpresei ezagutzera eman beste eskualde batzuetan alor honetan izan duten esperientzia, enpresari euskararen erabilera plan batek dakartzkion onurak, LanHitz programa...

##### **5.1.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI**

5.1.3.1. Saritu euskararen erabilera areagotzeko planak abian jartzen dituzten enpresak: diru-laguntzak eman jarraipenerako, aipamen berezia herriko web orrian...

(\*) 5.1.3.3. "Geure berbie euskeraz" hitzarmengintza kanpaina garatu enpresa arloan

#### **5.2. Merkataritza eta ostalaritzan euskararen erabilera handitu.**

##### **5.2.1. SENSIBILIZAZIOA**

5.2.1.2. Errotulazioa finkoa eta noizbehinkakoa euskeraz ere jartzeko kanpainak martxan jarri, merkataritza elkarteen bitartez...

5.2.1.3. Banan-banako elkarriketak egin merkataria eta ostalariekin paisaia linguistikoak euskararen erabileran duen eraginaz.

## 5.2.2. KOMUNIKAZIOA

5.2.2.2. Ezagutzera eman euskararen erabilera normalizatzeko udalean bertan eta beste erakundeetan eskaintzen diren aukera eta programak: diru-laguntzak errotuluak euskaraz jartzeko, laguntza teknika itzulpenetarako...

## 5.2.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI

5.2.3.1. Arloko merkataritza eta ostalaritza elkarrekin koordinatuz proposamen orokor bat luzatu euskararen erabilera gehitzera bideratuta: ezagutza lantzeko, errotulazioa eta papeleria euskalduntzeko, material idatzien katalogoa (merkealdiak, itxita/zabalik)...

5.2.3.4. Saritu merkataria eta ostalarien ahalegina: udaleko webean eskegi...

5.2.3.6. Euskararen presentzia kalitatezkoa bermatu noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako kartel, ohar eta informazio orrietan.

(\*) 5.2.3.11. "Geure berbie euskeraz" hitzarmengintza kanpaina garatu merkataritza eta ostalaritza arloan

(\*) 5.2.3.12. Bai Euskarari ziurtagiriaren elkarrekin hitzarmena sinatu elkarlanareko

(\*) 5.2.3.13. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin hitzarmena sinatu elkarlanean kanpaina zehatzak burutzeko

## 6. Aisia

### 6.1. Aisialdi eskaintzan euskararen erabilera handitu.

#### 6.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

6.1.1.1. Hitzarmena sinatu aisialdi taldeekin, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

#### 6.1.2. KOMUNIKAZIOA

6.1.2.1. Informazioa eman herritarrei euskarazko aisialdi eskaintzaz: triptikoak osatu, udaleko aldizkarian agertu, web orrian zintzilikatu...

### (\*) 6.2. Elkarten funtzionamendua eta eskaintza euskarazkoa izan dadin baliabideak eskaini

#### 6.2.1. LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI

(\*) 6.2.1.1. "Geure berbie euskeraz" hitzarmengintza kanpaina garatu elkarten esparruan eta zerbitzu iraunkorra eskaini elkarteei

## 7. Kirola

### 7.1. Kirol eskaintzan euskararen erabilera handitu.

#### 7.1.1. SENTSIBILIZAZIOA

(\*) 7.1.1.3. Udalaren Kirol Erakundeak eskaintzen dituen ikastaroetako hizkuntza irizpideen jarraipenerako koordinazioa landu

(\*) 7.1.1.13. Urte bukaerako kirol jaialdi herrikoia antolatzeke kirol elkarteak inplikatu ("Abixadan")

**(\*) 7.2. Kirol esparruan diharduten elkarteei baliabideak eskaini, euskararen barru eta kanpo erabilera areagotzeko**

**7.2.1. LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI**

**(\*) 7.2.1.1. "Geure berbie euskeraz" hitzarmengintza kanpainaren bitartez zerbitzu iraunkorra eskaini kirol elkarteei**

- **2. Helburu estrategikoa.- Euskararen elikadura:**

**8. Kulturgintza**

**8.1. Kultur eskaintzan euskararen erabilera handitu.**

**8.1.1. SENTSIBILIZAZIOA**

8.1.1.1. Herriko kultur elkarteekin hitzarmenak sinatu, haietan euskararen erabilera sustatzeko.

**8.5. Erlijio saioetan euskararen erabilera handitu.**

**8.5.2. LAGUNTZA TEKNIKOA ESKAINI**

8.5.2.1. Laguntza teknikoa eskaini, erlijio saioetako materialaren itzulpenerako eta testuak kalitatezkoak direla bermatzeko.



### **3.- EGITASMOAREN GARAPENA**

#### **3.1.- 2013an beteko diren zeregin nagusiak:**

- **Hizkuntza tailerra (“Zelan idatzi”)** eskaini elkartegintzako hitzarmenkidetara, azken hiru urteetan prestatutako materiala oinarri.
- **Ikastalde bereziak eskaini** merkataritza eta ostalaritzakoei.
- Eragileei bisitak egin eta **hitzarmenkide berriak lortu**. 2012an egindako inkesta erraldoia bitarteko, atal honi astindu ona emateko asmoa dugu:
  - 20 merkataritza-ostalari.
  - 10 enpresa txiki berri (aparteko garrantzia emango zaie osasun arloko profesionalen arlokoiei eta kontsumitzaileen eskubideei buruzko Dekretuak biltzen dituenen).
  - 8 elkarte berri.
- **Hizkuntza aldaketak** eragitea urtean zehar:
  - Dendetan: 60 aldaketa.
  - Enpresa txikietan: 70 aldaketa.
  - Elkarrekin: 40 aldaketa.
- **Hizkuntza indizea neurtu** (HINAT neurgailua) kanpainako hiru ataletan (merkataritza, enpresa, elkartegintza) eta %1eko igoera lortu.
- **Aldizkaria (berri-papera) argitaratu**, urtean zehar ale bat kaleratuz (ekainean). Ikusi 3. eranskina.
- **Administrazioarekin** hitzarmenkideek mantentzen dituzten harremanetan euskararen erabilera areagotzeko konpromisoak finkatu, bisitaldiak eginda (Udalarekin, Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, INEM-Gizarte Segurantzarekin).
- **Begiraletza landu** (kanpainak gizarte eragileengan duen eragina neurtzeko inkesta): gizarte esparru desberdinetako 12 erakunderen bitartez burutuko da.
- **Kontseiluarekin eta Zirutagiriaren elkartearekin hitzarmenak** berretsi 2012rako eta bidezko sustapen lana egin.
- **Egingo diren azpiekintzak:**
  - **Foroa/bloga sendotu**, hitzarmenkideen artean harremanak areagotu eta esperientziak trukatzeko.



- **Asteleheneroko merkatu plazan eragiteko** 2011 eta 2012an burutu den kanpaina bereziari jarraipena eman. Eskualde mailan eragin handiko erreferentea da, indartsua oraindik; beraz, saltzaileei, 2011n eta 2012an emandako urratsei beste bat gehitzea proposatuko zaie, konpromiso maila desberdinekin eta, batik bat, ahozko jardunari begirakoa. Hau guztia, udaleko Eria eta Azoka arloko arduradunekin elkarlanean.
- **“Kirola Euskeraz!”** kanpaina oinarri, inkesta berezia egin entrenatzaile eta begiraleei eta azken urteetan abian jarritako kontraste taldeak eratu elkarte bakoitzarekin. Honekin lotuta dago Alkarbideko D ereduko lan-mahaian egin den planteamendua, goi-erakundeen bitartez kirol federazioetan eragitekoa alegia (ikus 1. Eranskina).
- **Kultur eta aisi elkarteko kideekin azken urteetan eratutako bi kontraste taldeekin jarraitu**, kanpainako sarea hedatu eta finkatzeko eta hitzarmengintza kanpainako beste ataletakoekin harremanak normalizatzeari begira. Euskaraz funtzionatzeko “beharrizana” sortu behar da.

### **3.2.- Jarduerak nork burutuko dituen:**

- **Euskara Zerbitzuak bere bizkar burutzekoak:**
  - Elkarrekin/Erakundeekin harremanak izan eta hitzarmena sinatzeko proposamenak landu.
  - Motibazioa eta urteko helburuak landu hitzarmen-kide berri bakoitzarekin..
  - Bai Euskarari ziurtagiriaren elkarrekin eta Kontseiluarekin hitzarmenak taxutu eta hitzarmengintzarekin uztartu (ziurtagirien sustapena,...).
  - Zerbitzu iraunkorrerako eskaerei erantzun eta, behar denean, zerbitzu iraunkorrerako adjudikazioduna den Artez enpresarekin zubi lana egin.
  - Enpresetako Euskara Planetarako lehenengo urratsak bideratu eta urteko diru laguntzak esleitu. (ikus 2. eranskina).
  - Koordinazio batzarrak eratu eta kanpainaren betetze-mailaren segimendua egin.



- Urtean zehar burutuko den “Kirola euskeraz” azpiekintza bideratu (kirol federazioei lotutako Alkarbideko lan-mahaiaren dinamizazioa barru) eta hitzarmenkode diren kirol elkarteen dinamikarekin uztartu.
- Buruturiko lanei buruzko txostenak egokitu.
- **2008an Artez enpresari adjudikatu zitzaion zerbitzu-kontratua bukatu da 2012ko uztailean.** Berri bat adjudikatzeko prozesua bete da eta enpresa berari adjudikatu zaio. Adjudikaziodunaren bitartez eta Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzapean garatuko diren kanpainaren eginkizunak:
  - Hitzarmenkode berri bakoitzari buruzko hizkuntza egoeraren diagnostikoa egin, beharizanak neurtu, Diagnostikoaren arabera hitzarmena egokitu eta baliabideak eskaini.
  - .
  - Hitzarmenkode guztiei urtean zehar bi sasoi berezitan (maiatza-ekaina eta azaroa-abendua) bisitaldiak egin, urtean zehar izan diren ohiko harremanetatik aparte.
  - Hitzarmena sinatu dutenei zerbitzu iraunkorra eskaini (itzulpenak, errotulo edo kartel bereziak, hizkuntza aholkularitza, hiztegi elektronikoak, agiri-ereduak, agiriak.net, ikasare.net).
  - HINAT neurgailurako datuak jaso eta prozesatu (txostena osatu).
  - Kanpainaren begiraletzarako inkesta egin, hausnartu eta txostena osatu.
  - Kirol elkarteetan inkesta burutu eta kontraste taldeak eratu. Kultur eta aisi elkarteetan atalean ere kontraste taldeak antolatu.
  - Lan guztiei buruzko txostenak egokitu eta Euskara Zerbitzuarekin ohiko koordinazio bilkurak egin bi hilabeterik behin.

#### **4.- XEDE TALDEAK:**

Hitzarmena sinatuta daukaten denda (137), enpresa txiki (48) eta elkarteekin (58) elkarlana burutzeko tresna dugu “Geure berbie euskeraz” Hitzarmengintza kanpaina.

##### **DENDAK**

| Urtea | Egozan dendak | Zarratu diranak | Kanpoan geratutakoak | Sartutako barriak | Guztira amaieran |
|-------|---------------|-----------------|----------------------|-------------------|------------------|
| 2001  | 76            | -               | -2                   | 10                | 84               |
| 2002  | 80            | -               | -6                   | 5                 | 79               |
| 2003  | 64            | -               | 14                   | 20                | 98               |
| 2004  | 98            | 5               | 2                    | 9                 | 100              |
| 2005  | 100           | 2               | 2                    | 12                | 108              |
| 2006  | 108           | 7               | -                    | 15                | 116              |
| 2007  | 116           | 5               | -                    | 9                 | 120              |
| 2008  | 120           | 2               | 2                    | 4                 | 120              |
| 2009  | 120           | 2               | -                    | 9                 | 127              |
| 2010  | 127           | 1               | -                    | 5                 | 131              |
| 2011  | 131           | 1               | -                    | 7                 | 137              |

##### **ENPRESA TXIKIAK**

| Urtea | Egozan enpresak | Zarratu diranak | Kanpoan geratutakoak | Sartutako barriak | Guztira amaieran |
|-------|-----------------|-----------------|----------------------|-------------------|------------------|
| 2001  | -               | -               | -                    | 7                 | 7                |
| 2002  | 7               | -               | -                    | 2                 | 9                |
| 2003  | 9               | -               | -                    | 2                 | 11               |
| 2004  | 11              | -               | -                    | 11                | 22               |
| 2005  | 22              | -               | -                    | 4                 | 25               |
| 2006  | 25              | 1               | -                    | 6                 | 30               |
| 2007  | 30              | 1               | -                    | 3                 | 32               |
| 2008  | 32              | -               | -                    | 4                 | 36               |
| 2009  | 36              | -               | -                    | 11                | 47               |
| 2010  | 47              | -               | -                    | 2                 | 49               |
| 2011  | 49              | 2               | -                    | 1                 | 48               |

##### **ELKARTEAK**

| Urtea | Dagozan elkarteak | Sinatu daben taldeak | Sinatu ez dabenak | Desagertutakoak | Erantzun barik edo falta direnak |
|-------|-------------------|----------------------|-------------------|-----------------|----------------------------------|
| 2004  | 72                | 37                   | 6                 | 3               | 26                               |
| 2005  | 75                | 49                   | 8                 | -               | 14                               |
| 2006  | 75                | 51                   | -                 | -               | 12                               |
| 2007  | 75                | 57                   | -                 | -               | 6                                |
| 2008  | 75                | 57                   | -                 | -               | 6                                |
| 2009  | 75                | 57                   | -                 | -               | 6                                |
| 2010  | 75                | 57                   | -                 | -               | 6                                |
| 2011  | 75                | 58                   | -                 | -               | 5                                |



**Balorazio kuantitiboari buruzko hausnarketa egiterakoan**, kontuan hartu behar da merkataritza eta enpresa arloetako xede taldea, gorenetik jota, 1.300 ingurukoa dela, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren epigrafe guztietan agertzen direnak batuta (enpresa, merkataritza mota guztiak, profesionalak, autonomoak,...) eta aintzat hartuta autonomo edo enpresa bera ere epigrafe desberdinetan jaso daitekeela. Beraz, xede taldearen estimazioa (enpresak gehi merkataritza) gutxi gora-beherakoa dugu: hitzarmenkide ditugu 188 (xede taldearen %14,46).

Aipatu behar da hitzarmenkideen artean esparru bakoitzeko ereduizkoak eta garrantzitsuenak daudela (langile kopuruagatik, herrian duten eraginagatik,...).

Nabaria da elkarteen atalean izandako lorpena (75etik 58 ditugu hitzarmenkide, xede taldearen %76), baina euren baitan gehiago eragitea dagokigu.

**Balorazio kualitatiboari begirako adirerazleak** HINAT neurgailuak emango dizkigu, hitzarmenkideen arteko, eta atal bakoitzeko, erabileraren indizea azalduz. Datu horiekin urtez urteko bilakaera kontrolatzen ari gara.

## 5.- KRONOGRAMA

|                  |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Urtarrila</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkataritza eta ostalaritzako merkealdiko deiak</li> <li>• Koordinazioa (Udala-Artez)</li> <li>• Begiraleta</li> <li>• Foroa / Bloga</li> <li>• Hizkuntza aholkularitza</li> <li>• Itzulpen zerbitzua</li> </ul>                                                                                                                               |
| <b>Otsaila</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Astelehenetako merkatu plazako hitzarmen kanpaina</li> <li>• Koordinazio bilera (Udala- Euskalgintza- Kontseilua)</li> <li>• Kirol lan-mahaia (Alkarbide) / jarraipena</li> <li>• Prentsa artikulua: 2012ko balantzea eta 2013ko egitasmoa</li> <li>• Foroa / Bloga</li> <li>• Hizkuntza aholkularitza</li> <li>• Itzulpen zerbitzua</li> </ul> |
| <b>Martxoa</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa txikietako bisitak</li> <li>• Kultur eta Aisi elkarteekin kontraste taldeak</li> <li>• Prentsa artikulua</li> <li>• Foroa / Bloga</li> <li>• Hizkuntza aholkularitza</li> <li>• Itzulpen zerbitzua</li> </ul>                                                                                                                           |
| <b>Apirila</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa txikietako bisitak</li> <li>• Elkarteetako jarraipenak</li> <li>• Kirol elkarteetako kontraste taldeak</li> <li>• Foroa / Bloga</li> <li>• Hizkuntza aholkularitza</li> <li>• Itzulpen zerbitzua</li> </ul>                                                                                                                             |
| <b>Maiatza</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkataritza eta Ostalaritzako bisitak</li> <li>• Koordinazio bilera (Udala-Artez)</li> <li>• Foroa / Bloga</li> <li>• Hizkuntza aholkularitza</li> <li>• Itzulpen zerbitzua</li> </ul>                                                                                                                                                         |
| <b>Ekaina</b>    | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa txikietako bisitak</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |

|                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|----------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                | <ul style="list-style-type: none"> <li>Elkarteetako jarraipenak</li> <li>Prentsa artikulua</li> <li>Berripapera (19. alea)</li> <li>Foroa / Bloga</li> <li>Hizkuntza aholkularitza</li> <li>Itzulpen zerbitzua</li> </ul>                                                                                                                    |
| <b>Uztaila</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Urte erdiko balantzea</li> <li>Koordinazioa (Udala-Artez)</li> <li>Prentsa artikulua: sustapen jardueren informazioa</li> <li>Motibazio kanpaina</li> <li>Foroa / Bloga</li> <li>Hizkuntza aholkularitza</li> <li>Itzulpen zerbitzua</li> </ul>                                                       |
| <b>Abuztua</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Astelehenetako Merkatu plazako bisitak (jarraipenak)</li> <li>Prentsa artikulua</li> <li>Foroa / Bloga</li> <li>Hizkuntza aholkularitza</li> <li>Itzulpen zerbitzua</li> </ul>                                                                                                                        |
| <b>Iraila</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Merkataritza eta ostalaritzako bisitak</li> <li>Enpresa txikietako bisitak</li> <li>Koordinazioa (Udala-Artez)</li> <li>Ziurtagiria zabaldu (Udala-Euskalgintza-Kontseilua)</li> <li>Prentsa artikulua</li> <li>Foroa / Bloga</li> <li>Hizkuntza aholkularitza</li> <li>Itzulpen zerbitzua</li> </ul> |
| <b>Urria</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Enpresa txikietako bisitak</li> <li>Elkarteetako bisitak</li> <li>Kultur eta Aisi elkarteekin kontraste taldeak</li> <li>Ziurtagiria zabaldu (Udala-Euskalgintza-Kontseilua)</li> <li>Foroa / Bloga</li> <li>Hizkuntza aholkularitza</li> <li>Itzulpen zerbitzua</li> </ul>                           |
| <b>Azaroa</b>  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Aldizkaria</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                 |

|                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|----------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                | <ul style="list-style-type: none"> <li>● Kirol elkarteetako kontraste taldeak</li> <li>● Hizkuntza tailerra</li> <li>● Koordinazioa (Udala-Artez)</li> <li>● Begiraleetza</li> <li>● Foroa / Bloga</li> <li>● Hizkuntza aholkularitza</li> <li>● Itzulpen zerbitzua</li> </ul>                                                                                                                                  |
| <b>Abendua</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>● Merkataritza: merkealdira aurreko deiak</li> <li>● Enpresa txikietako bisitak</li> <li>● Elkarteetako bisitak</li> <li>● Abixadan</li> <li>● Ziurtagiria banatu (Udala-Euskalgintza-Kontseilua)</li> <li>● Foroa / Bloga</li> <li>● Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzak esleitu</li> <li>● Hizkuntza aholkularitza</li> <li>● Itzulpen zerbitzua</li> </ul> |

## **6.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**

### **Eragileak:**

- Euskara Zerbitzua: kanpainaren antolaketa, koordinazioa, harreman zuzenak, dinamizazioa eta zabalkundea.
- Kultur Etxea: azpiegitura (zerbitzuaren kokalekua) eta zabalkundea.
- Artez enpresa (aholkularitza eta laguntza tekniko).
- Urdaibai Rugby Eskola, kanpaina berezietarako begiraleetza.
- Gizarte Erakundeen Kontseilua (hitzarmena bitarteko, Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean): merkataritza eta enpresetarako ekintzak.
- Ziurtagiriaren elkarte (Bai euskarari ziurtagiriaren sustapenerako)
- Euskalgintzako eragileak (Busturialdean euskaraz bizi Elkartea,..., Kontseiluaren urteko ekintzak dinamizatzen laguntzeko)

### **Giza baliabideak:**

- Euskara Zerbitzua: HNT1 teknikaria eta kanpainarako dinamizatzailea.
- Busturialdean euskaraz Bizi (begirale bat).
- Artez enpresa (aholkularitza zerbitzuaren adjudikazioduna): koordinaziorako teknikaria, itzulpen zerbitzua eta kanpainako arduretarako teknikaria.



- Urdaibai Rugby Eskolako 6 begirale kanpaina berezietarako.

**Diru baliabideak**.- Euskara Arloak 2013ko udal aurrekontuan dituenak.

## **7.- AURREKONTUA**

### **Gastuak**

|                                                                                                                                                                                                                                         |               |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|
| <b>Zerbitzu-kontratazioa:</b> aholkularitza, teknologia baliabideak (agiriak.net, ikasare.net, ikastaroak), HINAT neurgailua, zerbitzu iraunkorra (itzulpenak, eredu-egokipenak, errotuloak), txostenak,                                | 34.000        |
| <b>Euskara Zerbitzuak kontrataturiko dinamizatzailerak:</b> Kanpainaren dinamizazioa (bisitak) eta motibazioa landu, datu bilketa (HINATerako eta diagnostikorako), zerbitzu iraunkorrerako zubi lana, lanari buruzko txostenak egitea. | 22.000        |
| <b>Geure berbie euskeraz</b> (berripaperaren ale bat inprimatu eta banatzea)                                                                                                                                                            | 800           |
| <b>Beste gastu batzuk</b> (hitzarmen-kideekin partekatutako ziurtagirien banaketarako jaialdia; ziurtagirien banaketa eta laguntza; sentsibilizazio kanpaina herritarrei eta hitzarmen-kideei bereziki)                                 | 4.500         |
| <b>Enpresetako Euskara Planetarako diru laguntzak</b>                                                                                                                                                                                   | 12.000        |
| <b>Gastuak guztira</b>                                                                                                                                                                                                                  | <b>73.300</b> |

Gernika-Lumon, 2013ko urtarrilean.

Esperanza Uriarte Erdaide  
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa  
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria

## 1. Eranskina

### TXOSTEN-PROPOSAMENA

#### HELBURUA

ALKARBIDEN, BIZKAIKO EUSKARA ZERBITZUEN BILGUNEAN, KIROL ARLOAREN NORMALIZAZIOA DELA ETA, SORTU DEN KEZKARI KONPONBIDEA EMAN NAHIAN, ERATU DEN LAN-MAHAIK PROPOSAMEN ZEHATZA BIDERATZEA

#### AURREKARIAK

- **Alkarbideko eredu desberdinetako lan-mahaietako ustea** da kirolaren eragina nabarmena baino nabarmenagoa dela euskararen normalizazioan:
  - Eskola kirolean eta gazteekiko langintzan inplikatur dagoen jende andana.
  - Haurrak eskolaz kanpoko ekintza gisa ez ezik, klubetan ari dira gero eta gazteago, eskolaren eraginpetik kanpo.
  - Haur eta gaztetxoek hortxe sortzen dituzte koadrilak eta, era berean, esparru horretan gurasoen arteko hainbat harreman ere garatzen dira.
  - Hizkuntza ohiturak finkatzeko adin tarte garrantzitsuenak dira eta funtsezko esparrua da horretan diharduten hurrek eta gurasoen hizkuntza ohiturak bideratzeko.
- Euskara Zerbitzuek udalerri mailan dihardute Plan Estrategikoen arabera ekintzak eta kanpainak bideratu nahian eta, askotan, kirol elkarteekin hitzarmenak sinatzen dituzten arren, gaudiezinezko muga batekin egiten dute topo: **kirol federazioak**. Hauek beste maila bateko erakundeak izanik, federazioen diagnostikoa egin zen Kirol Zuzendaritzaren laguntzarekin (1. eranskina: Euskararen sokak etenik ez!).
- Hortik aurrera, **gaia lurralde mailako kirol erakundeekin lantzea** ebatzi zen eta informazio zuzena jasotzeko batzar berezi bat ere izan zen 2011ko apirilaren 1ean (2. eranskina: akta).
- Hurrengo pausua, **lan-mahai berezi bat eratzea** izan da eta, horixe xede, egin zen 2011ko azaroaren 10ean bilera (3. eranskina: akta).

#### PROPOSAMENA

Beraz, aurrekariak kontuan hartuta, Kirol lan-mahai honen izenean, atsegin dugu Euskara Zuzendaritzako eta Kirol Zuzendaritzako Arduradun nagusiei honako proposamena egitea:

Kirol Federazioek kirol esparruan duten eraginagatik, dagokien jardun eremuan euskararen normalizazioa lortzeko **hausnarketa egitea**, hurrengoak abiapuntu:

1).- Kirol Zuzendaritzak Kirol Federazioekin egiten dituen **hitzarmenetan** (eskola kirola, kirol txapelketa ofizialak eta abarrekoetan) hizkuntza irizpideena lantzeko



**zehaztapenak egitea**, federazioen izaera erdi-publikoa eta dituzten eskumen publikoak aintzat hartuta. Zehaztapen horiek bete ezean, eta udaletatik kexarik helduz gero, nolabaiteko neurriak hartzea (gutunak bidali eginbeharrekoa gogorarazteko...).

2).- Federazioen jarduna, bai barrukoa zein kanpora begirakoa, euskararen normalizaziorako egokitzearen (batik bat Eskola Kirolari lotutako ekintzetan), Kirol Zuzendaritzak, Euskara Zuzendaritzak, edo biak, dagokionak, behar dituzten **baliabideak eskaintzeko moduei buruzko hausnarketa egitea** (hitzarmen bidez, Dekretu bidez,...), 2013rako nolabaiteko konponbidea islatzeko asmoz.

Azken puntu horri dagokionez, federazioen euskararen erabilera sustatzeko ekimena zein zuzendaritzak edo biek hartuko duten erabakita dagoenean, orduan hasiko da berriro lanean Kirol lan-mahaia, irtenbideak proposatzeko eta Bizkaiko udaletako euskara zerbitzuen interesak adierazteko.

3).- **Arestiko bi puntuetan esandakoa, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuari estu-estu lotuta doa**, hau da, Euskadiko Kirol Federazioetan, besteak beste, euskararen erabilpena arauzkotzen duen Dekretuari. (4. eranskina: Dekretuko XIII. Titulua).

Kirol lan-mahaiaren partaideak:

**Asier Intxausti**  
Kirol Zuzendaritzaren ordezkaria

**Patxi Alberdi**  
Euskara Zuzendaritzaren  
ordezkaria

**Fermin Elexpe**  
Euskara Zuzendaritzaren  
ordezkaria

**Bittor Zarrabeitia**  
D ereduko koordinatzailea

**Fernando Ruiz**  
C ereduko koordinatzailea

**Nerea Laskibar**  
Alkarbideko teknikaria

## **2. Eranskina**

### **ENPRESETAKO EUSKARA PLANERARAKO DIRU LAGUTZEN ESLEIPENA-2011**

#### **XEDEA**

EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIAREN PROPOSAMENA, 2012 URTEAN EUSKARA PLANA GARATU ETA INPLEMENTATZEN ARI DIREN GERNIKA-LUMOKO ENPRESEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO.

#### **ARGUDIOAK**

Kontuan hartuta Gernika-Lumoko Udalak 2003ko apirilaren 30ean onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoan aintzat hartu ziren ekintzak enpresa munduari dagokionean eta, horren ildotik, 2009-2012 eperako Plan Estrategikoak lan-mundua euskalduntzeari eutsiko diola.

Kontuan hartuta 2011 urteko Kudeaketa Planean hurrengoak lantzen ari garela:

#### **Esparrua: 5. Lan mundua**

#### **Helburua: 5.1. Lan munduan euskararen erabilera handitu.**

##### **5.1.1. SENTSIBILIZAZIOA**

**Ekintza:** 5.1.1.1. Herrian eragin handia duten enpresekin banan banako elkarrizketak egin, eta azaldu euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren, Nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden...

##### **5.1.3. LAGUNTZA EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA ESKAINI**

**Ekintza:** 5.1.3.1. Saritu euskararen erabilera areagotzeko planak abian jartzen dituzten enpresak: diru-laguntzak eman jarraipenerako, aipamen berezia herriko web orrian...

**Ekintza:** 5.1.3.3. "Geure berbie euskeraz" hitzarmengintza kanpaina garatu enpresa arloan

Iraungo hamazazpi urtez Merkataritza arloan euskararen normalizazioa lantzeari ekin diogu eta enpresa mundua 2001etik hona. Orain dela lau urte berriztapen bat erantsi genion enpresa esparruko kanpainari: nahi duten enpresekin elkarlanean bertako Euskara Planak gauzatzea. Horretarako, Euskara Arloak diru laguntza partidan kopuru bat aurreikusi du arlo horretarako (13.000 €).

Hori horrela, 2012n Plana garatzeko eta inplementatzeko konpromisoa hartu duten enpresei egin zaie diru laguntza deialdia (1. eranskina), kontuan izanik baldintza nagusiak:

1).- Deialdira aurkeztu ahal izango diren enpresak Gernika-Lumon kokatuak izan beharko dute.

2).- Deialdi honetara aurkezteko, beharrezko izango da Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak helburu berarekin egindako deialdietara aurkeztu izana.

3).- Beharrezko izango baita, Eusko Jaurlaritzatik eta Bizkaiko Foru aldunditik helburu horretarako jasotako diru laguntzen besteko kopuruko gastuak ordaindu izana justifikatzea.

4).- Diru laguntzak emateko kopuru osoa eta baremoa.- Kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak egiten dituzten diru laguntza deialdietan eskatzaileei jarritako baldintzen arabera euren bizkar aurrekontuaren %50a hartu behar dutela. Gernika-Lumoko Udalak deialdi honen helbururako 13.000 euro erabiliko ditu (aurrekontuko partida: 5-4514-48100) eta Bizkaiko Foru Aldundiak erabilitako baremoari jarraituz banatuko dira diru laguntzak.

5).- Epea: jakinarazpen hau jaso eta zazpi eguneko epean (dagokion eguneko eguerdiko 14:00etarako) aurkeztu beharko dira eskabideak Udal Erregistroan.

Jarritako epean, hurrengo koadroan agertzen diren enpresek aurkeztu dituzte eskabideak. Bakoitzari dagozkion datu ekonomikoak hauexek dira:

| ENPRESAK                               | Aurrekontu<br>osoa | (Eusko Jaurl+BFA)<br>Diru Lag | EJ+BFA<br>Diru lag.<br>% | Enpresaren<br>derrigorrezko<br>ekarpena (%50) | Defizita |
|----------------------------------------|--------------------|-------------------------------|--------------------------|-----------------------------------------------|----------|
| GERNIKA<br>GARBIKETAK                  | 10.228,00          | 3.902,57                      | 38,15                    | 5.114,16                                      | 1.211,59 |
| BUSTURIALEKO<br>IRRATI TELEBISTA       | 14.006,00          | 4.309,52                      | 30.76                    | 7.003,00                                      | 2.693,48 |
| EKIN / BIZKARGI<br>AUTOAK              | 26.658,18          | 7.343,40                      | 27,54                    | 13.329,09                                     | 5.985,73 |
| BENGOZARRA<br>ERAIKUNTZA<br>METALIKOAK | 28.879,88          | 8.063.211,51                  | 27,92                    | 14.439,94                                     | 6.376,64 |



Kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak egiten dituzten diru laguntza deialdietan eskatzaileei jarritako baldintzen arabera, euren bizkar aurrekontuaren %50a hartu behar dutela. Beraz, Euskara Arloak eskatzaileei euren ekarpenaz gain duten defizita murrizteko diru laguntzak eskaintzen dizkienez urtero, bidezko partidano dagoen diru kopurua (13.000 €) defizitaren arabera banatzea proposatuko da:

| PROPOSAMENAK                     | Defizita         | 13.000 €-ra egokituta |
|----------------------------------|------------------|-----------------------|
| GERNIKA GARBIKETAK               | 1.211,59         | 968,24                |
| BUSTURIALEKO IRRATI TELEBISTA    | 2.693,48         | 2.152,47              |
| EKIN / BIZKARGI AUTOAK           | 5.985,73         | 4.783,45              |
| BENGOZARRA ERAIKUNTZA METALIKOAK | 6.376,64         | 5.095,84              |
| <b>GUZTIRA</b>                   | <b>16.267,44</b> | <b>13.000</b>         |

## PROPOSAMENA

Aipatu guztia kontuan hartuta, gogoko dut Tokiko Gobernu Batzarrari hauxe proposatzea:

1).- Enpresa esparruan euskara bultzatzeko hitzarmengintza kanpaina burutzearekin batera Gernika-Lumoko Udalak hartzen duen konpromisoetako bat enpresetako Euskara Planak egin eta garatzeko diru laguntzak ematea da. Espedientean jasotako agirien arabera eta kontuan hartuta enpresetako planak garatzerakoan eskatzaileek hartzen duten konpromisoa, gastuen aurrekontutik Eusko Jaurlaritzatik eta Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako diru laguntzak eta enpresaren %50eko ekarpena kenduta, sortzen den defizita murrizteko guztira 13.000 euroko diru laguntza ematea erabaki da. Beraz, enpresen defizitaren arabera hurrengo diru laguntzak ematea ebatzi da:

| PROPOSAMENAK                     | Defizita (EJ+BFA-ren diru lag+enpresaren ekarpenaz gain) | 13.000 €-ra egokituta |
|----------------------------------|----------------------------------------------------------|-----------------------|
| GERNIKA GARBIKETAK               | 1.211,59                                                 | 968,24                |
| BUSTURIALEKO IRRATI TELEBISTA    | 2.693,48                                                 | 2.152,47              |
| EKIN / BIZKARGI AUTOAK           | 5.985,73                                                 | 4.783,45              |
| BENGOZARRA ERAIKUNTZA METALIKOAK | 6.376,64                                                 | 5.095,84              |
| <b>GUZTIRA</b>                   | <b>16.267,44</b>                                         | <b>13.000</b>         |

2).- Indarrean dagoen araudiaren arabera, diru laguntza jasoko duen erakundeak konpromisoa hartzen du lagundutako ekintzaren balantzea 2013 urteko urtarrilaren 31rako aurkezteko, emandako diru laguntzaren erabilera ziur dezaten zurigarriekin batera. Honetan adierazitakoa ez betetzeagatik, jasotako diru laguntzak itzuli beharra izan daiteke eta doloa, errua edota neglijentzia bitarteko balitz administrazio bideko hauspena litzateke.

Aurrekontuko partida: 5-4514-48100

Gernika-Lumon, 2012ko abenduaren 17an.

EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZIA,

Esperanza Uriarte Erdaide

### III. Eranskina

2011 urtea - 18. zk.



## geure berbie euskera z

Erredakzioa eta maketazioa: ARTEZ Euskara Zerbitzua

Argitaratzailea: Gernika-Lumoko Udala



### Enpresa mordoia Euske- ra Planetan murgilduta!

Euskal Autonomia Erkidegoko herri bakarrenetarikoa da Gernika-Lumo hainbeste enpresa Euskera Planetako diru laguntzetara aurkeztzen dirana. Izan be, hori guztia Udalak berak sustatzen dau, eta Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaz gain, Udalak be laguntzak emoten deutez Euskera Plana duten enpresei. Aitatu beharreko datua dogu Bizkaiko Foru Aldundira 33 enpresa aurkeztu ziralta eta horietatik 5 Gernika-Lumokoak ziralta, %15,15 hain zuzen be. Eta aurtan Eusko Jaurlaritzara aurkeztu diranetatik 7 gernikarrak izan dira: Argi-Ola Elektrizitatea, Bengozarra Eraikuntza Metalikoak, Busturialdeko Irrati Telebista, Ekin Autoak, Gernika Garbiketak, Totorikaguena Supermerkatuak eta aurtan aurkeztu da lehenengoz Cumenager enpresea (lehenengoz Malta eta Dalia).

### Gernika-Lumoko Euskaldunon Gida

Urte amaieran argitaratu dau Artez Euskera Zerbitzuak Euskaldunon Gidaren 4. edizioa. Urteetako lanaren fruitua da, eta bertan 31.400 profesional, komertzio, taberna, erakunde... fitxak dagoz. Gida berritu honek diseinu eta logo barria (Biklik enpresek diseinatu) dauka, eta baita geolokalizazio sistema be. Euskeraz lan egiten daben profesionalak, enpresak... topau nahi badozuz, sartu eta bertan topatuko dozuz. Ganera, informazioa jasotzeaz gain, bozkatzeko, iruzkihak sartzeko, eguneraketak egiteko... aukera emoten dau, eta erraz topetako bilaketa aurreratuaren bidez errazten deustu lana.

Bestalde, negozio barriren bat zabaldu badozu eta zerbitzua euskeraz eskaintzen badozu, bertan gehitzeko aukera emoten deustu gida honek. Hona hemen web guneko loturea:  
[www.euskaldunongida.net](http://www.euskaldunongida.net)

## 33 ziurtagiri

Aurtan be abenduan egin da Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia. Abenduaren 3an, Euskerearen Nazinoarteko egunean, Merkatu Plazan egin zan ekitaldia. Onintza Enbeitak aurkeztu eban, eta Rober Gutierrez Ziurtagiriaren Alkarteko zuzendaria eta Itxaro Uriarte Gernika-Lumoko Euskera arloko zinegotzia be han aritu ziran Ziurtagiriak banatzen eta datorren urteko erronkei buruz berba egiten.

Gernika-Lumoko 33 enpresak, komertzio eta mota danetako entidadeek jaso eben ziurtagiria. Iaz Ziurtagiria jaso eben danek berritu dabe aurtan, eta horrek euskerearekiko daukien konpromisoa argi erakusten dau. Ganera, beste entidade batek be bat egin dau ekimenagaz, Biklik komunikazio enpresek eta "Zerbitzua Euskeraz" mailea lortu dau.

Aurtan laugarren urtez jarraian ospatu da ekitaldia eta euskerearekin daukien konpromisoa berritu edo lehenengoz jaso daben 33 enpresa, saltoki eta entidadeen artean bostek "Zerbitzua eta Lana Euskeraz" mailea lortu dabe, beste hamaikak "Zerbitzua Euskeraz" mailea, eta gainerako hamazazpiek "Euskararen Bidean" mailea. Bestalde, ezin dogu aitatu barik itxi Kopilaster Fotokopiak-ek mailaz igo daua eta zerbitzua euskeraz emoteko gai da.

Rober Gutierrez Ziurtagiriaren Alkarteko zuzendariak Bai Euskarari Ziurtagiria jaso eben entidadeak zoriondu ostean, norabide berean "urrats biziak" emoten jarraitzera animau ebazan.

Ziurtagiriaren sustapena egiteko lehiaketa antolatu eban azaroan Gernika-Lumoko Euskera Zerbitzuak. Herriar Ziurtagiria daukien entidade eta saltoki danetan eskuorriak banandu ziran, eta Ziurtagiriaren logoa osatu behar izan eben. Horretarako pegatinatxoak egozan herriko saltokietan eta erosketa egitean horrelako pegatinekaz logoa osatu behar izan eben. Hainbat lagunek hartu eben parte eta eskuorria osatu ebenen artean zozketa egin zan abenduaren 3an Merkatu Plazan, Ziurtagiriaren banaketa ekitaldiagaz batera.



## Barriketan! Jon - GerniGarden



1.- Noiz hasi zinen kanpainan parte hartzen?

Urte batzuk badaroaguz, 2000. urtean sinatu genduan hitzarmena.

2.- Zeintzuk dira ordutik hona egin douezan aldaketak?

Euskerea gehiago erabilten dogu bai ahozkoan, bai idatzizkoan. Bezeroekaz berba gehiago egiten dogu euskeraz, eta idatzizko dokumentuetan be euskereak bere lekua hartu dau: jaietako programan publikidadea euskeraz egiten dogu, egutegiak euskeraz ataraten doguz, makinako tiketa be euskeraz jarri dogu eta fakturretan be euskerearen presentziak nabarmen egin dau gora. Ganera, iaz web gunea be egin

genduan eta ele bietan dago.

3.- Zer da Euskera Zerbitzuan gehien baloretan dozuena?

Berehalako itzulpenak eta errotuluak egitea. Ganera, batzutan geuk euskeraz sortu arren, zalantzak izaten doguz eta Zerbitzuan egiten diran zuzenketak be oso erabilgarriak dira.

4.- Uste dozu euskerea erabiltea eta haren presentzia aberasgarri dala?

Bai, beti da aberasgarria. Ganera, gazteek gero eta gehiago erabiltzen dabe euskerea; nagusiagoek, nahiz eta jakin, gehiago kostetan jake euskeraz berbetan hastera.

## Barriketan! Fernando - Ideasur Alkartea



1.- Noiz hasi zinen kanpainan parte hartzen?

Bost bat urte izango dira Udaletik deitu euskuela eta hitzarmena sinatu genduan.

2.- Zein aldaketa egin douez ordutik hona?

Gure helburua ahozko zein idatzizko komunikazioak elebidun izatea da. Idazten doguzan testu gehienak ele bietan egoten dira. Bideasur boletinean eta web gunean be euskera sartzen saiatzen gara. Elkarrekin egiten dabezan aurkezpen eta ekitaldietan euskera dakienetako bat egoten saiatzen gara, baina sarritan ez da erreza izaten. Gatxa da dana ele bietan izatea, baina hizkuntza bien arteko oreka mantentzen saiatzen gara.

3.- Zer da Euskera Zerbitzuan gehien baloretan dozuena?

Hainbat gauza: eraginkortasuna (itzulpen baten eskaera egiten dogunean, lana eraginkorra izaten da), motibazioa (itzulpenak bidaltzean gainbegiratu egiten doguz

eta beti sortzen jaku interesa), eta horreek guztiak integratzen laguntzen dau.

4.- Zer zailtasun dituzue eguneroko lanean?

Ideasur sortu zanean kide erdiak euskaldunak ziran, baina aldaketak egon dira eta gaur egun ez dago euskeraz dakien jende askorik. Gaur egun ez dago alkartean aktiboki parte hartzen daben kide euskaldunik, eta hori da zailtasun nagusia. Baina nabarmendu gura dogu ekintza puntualetan kide euskaldunen laguntza daukagula, eta baita kide gazteena be.

5.- Uste dozu euskera jakitea aberasgarria dala?

Noski baietz! Alde batetik hizkuntza jakiteak kulturaren ezagutza dakar; eta beste alde batetik, bertako kultura eta hizkuntza ezagutzeak immigranteoi bertan integratzen laguntzen deusku. Ez da musika edo artearen modukoa, horreek barik bizi geinke, baina hizkuntza eta kultura oinarrikoak dira, garrantzitsuak eta beharrezkoak.

## Fakturak eta ticketak

Geure Berbie Euskeraz kanpainearen barnean herriko merkataria, enpresa txiki eta alkarteek hainbat aldaketa egin dabez aurtun, eta hiru arloetan nabarmen egin dau gora euskerearen erabilereak. Merkatarien artean egin diran aldaketarik garrantzitsuenak tiketa euskeraz ipintea, eta bezeroei

emoten jakezan fakturak euskeraz egiten hastera izan da. Enpresa txikietan egin diran aldaketa nagusiak enpresa batzuk gutunak eta bestelako idazkiak euskeraz bialtzen hastera izan da. Alkarteetan, oster, aldaketarik esanguratsuenak posta elektronikoak eta fakturak euskeraz bialtzen hasi dira. Beraz,

datuoi erreparetan badeutsegu aurtun hainbat aldaketa egin dabez eta euskerearen erabilerea normalizetako gogor ari dira lanean. Erabiltzaile hori, fujau zaitez zelan emoten deutesuezan, eta horrela ez bada, eskatu egiezu!

## Enpresa ertainak

Geroz eta gehiago dira Gernika-Lumon Euskera Plana daukien enpresak eta urte desbordinetan jarri ziran martxan bakoitza fase batean dago. 2006an jarri eban martxan plana Gernika Garbiketako enpresek, eta ordutik hainbat aurrerapauso emon dabez: idatzizko eta ahozko komunikazioak euskeraz izaten dira, baina zailtasunak daukiez INEM, Mutua eta Gizarte Segurantzaren bezalako erakundeekaz daukiezan hartu-emonak euskeraz egiteko.

2007an jarri eban Busturialdeko Irrati Telebistak plana martxan. Helburu asko beteta daukaz honek be, baina aurton ahozkotasuna eta bizkaiera landu dogu. Bizkaiera lantzeko trebakuntza saioak izan dabez, eta oso eraginkorrak izan dira saio honeek eta nabarmen aurreratu dabe.

Totorikaguena Supermerkatuak be Plana dauka eta apurka-apurka euskerearen erabilera normalizetan dabil.

2008an jarri eban martxan plana Bengozarra Eraikuntza Metalikoak 1969 SA eta Ekin/Bizkargi Autoak enpresek. Bengozarran geroz eta aurrekontu eta faktura gehiago egiten dabez euskeraz, eta gogoz ari dira lanean idatzizko komunikazioetan euskerearen erabilera

haunditzeko. Ekin/Bizkargi Autoak enpresetan be hainbat aldaketa egin dabez, eta aurton prebentzinoko eta segurtasuneko eskuliburuak euskeraz jarri dabez. Horrez ganera, poltsiko hiztegia egin dabe eta bertan daukiez enpresan eguneroko beharrian erabiltzen dabezan tresna, produktu eta abarren izenak. Urteari amaiera emoteko, hizkuntza portaerei buruzko ikastaro bat antolatu dogu, eta arrakasta itzela izan dau. Ikastaroa bi orduko saio bakar batean emon da.

2009an jarri eban martxan plana Argi-Ola enpresek eta dezente aurreratu dabe. Arloko terminologia landu dabe aurten bereziki, eta horretarako ikastaroak antolatu dabez. Ganera, poltsiko hiztegia egin dabe, eta honek euren eguneroko beharrian hitz teknikoak euskeraz erabiltzen lagunduko deuse.

Aurton, Cumenager enpresek be euskerearen aldeko apustua egin dau, eta diagnostikoa egin ostean, hainbat ekintza burutu dabez. 2 ikastaro eratu dira: alde batetik, euskalduntze ikastaroa, eta bestetik, alfabetatze ikastaroa. Hainbat behaginek emon dabe izena ikastaro honeetarako eta gustura joaten dira eskolera. Ganera, arloko terminologia lantzeko poltsiko hiztegi bat egiten ari dira, eta bertan topatuko dabez behaginek eguneroko beharrian erabiltzen dabezan berbak.



## 244 hitzarmenkide!

Azken urteotan etengabe doa hasten Geure Berbie Euskeraz kanpainako hitzarmenkide kopurua. Uda aurretik Izsishspa eta Makuegas iturgintzak sinatu eban hitzarmena; uda ostean, oster, ostalaritza arloko 3 tabernari

izan dira euskerearen aldeko apustua egin dabenak; Bengo-Etxe jatetxea, Junira Cafe eta Km 0 tabernak. Beraz, ostalariak be prest agertu dira euskerearen normalizazioan lan egiteko, eta dagoeneko hasi dira batzuk

kartak eta errotuluak euskeraz be ipinten. Kanpainan 138 merkatari, 48 enpresa txikik eta 58 alkartek parte hartzen dabe, 244 hitzarmenkidek hain zuzen be.

## HITZARMENKIDEAK MERKATARIAK

3kilik komunikazioa, ADELA GARTEIZ arropa denda, AINHOA oinetak, AIZU aldizkariak, ALKAR jolasak eta kirolak, ALIUNTZ burdindendak, AMILOTX liburu denda, ARES dastalekua, ARGIA optika, ARGIBIDE elektrizidada, ARRIEN optika, ARRONATEGI pinturak, ARTETXE argi denda, ATABAL taberna, ATXIKE ehiza eta arantzea, BAKE EDER kafeategia, BARRIAZARRA musika denda, BAREÑO jantzi denda, BATZOKIA jatetxea, BAZAR TXIKIA bazara, BED'S koltsoiak, BEGO ETA NEREA lurindegia, BENGOTXE jatetxea, BEREZI liburu denda, BIDAGUREN gozotegia, BIKARA altzariak, BILBAO aseguruak, BOLINA jatetxea, BONILLA argazki denda, BRONCEAIBURI estetika zentroa, DECORV dekorazioa, DESMAYO SURF arropa denda, DIONISIA arropa denda, DOMINGEZ farmazia, DONIBANE albaitaritza, DUKA arropa denda, DUSI lantzeria, EL CASERIO jatetxea, ELEJAGA farmazia, EGUREN optika denda, EROSKI bidaiak, ETXABE kirol denda, ETXEXO malloak, EUSEBIO bitxi denda, FERMIN zapata denda, F-2 zapata denda, GAROA komplementuak, GAUBIKA liburu denda, GERINI GARDEN lorak eta animalak, GERNIKA ortopedia, GERNIKA Zerraldiegia, GLOSS arropa denda, GOTZONE umeentzako denda, GUREA altzari denda, IBIALEDE tapiz denda, ILARGI dekorazioa, INTER SPORT EXTREME IRABAZAL kirol denda, IBIKETA bitxi denda, IZAGA uleapaindegia, IZASKUN harategia, IZASKUN EGURROIA uleapaindegia, IZIFISHPA, IABIER harategia, JAIME harategia, JASONE uleapaindegia, JESUS MARI harategia, JOLLY ROGER arropa denda, JOSTEN umeentzako arropa, JOSU jatetxea, JUANITA MUGATEGI mertzaria, JANIRA taberna, KARAN estetika zentroa, KM 0 taberna, KILI-KILI opari denda, KIPU kirol denda, KOPILASTER kopistegia, KOPIKOLAR kopistegia, KORTEZUBIKE jolasak, KOTOF mertzaria, L. de CARLOS tabakoak, LADIS DESIGN diseinua eta inprenta, LAGUN ON albaitaritza, LEIDE jostatu denda, LEJARRAGA bitxi denda, LEZAMA taberna, LIXOLENE fruta denda, LORDEX parrandamasia, LOURDES fruta denda, LUMIERE uleapaindegia, MABE poltsa denda, MADARIAGA hortz klinika, MAITE arropa denda, MAKUEGAS iturgintza, MARI KARMEN NAVARRO estetika-etxea, MARI SOL fruta denda, MARI TERE okindegia, MARIA LUISA lurindegia, MARIAN uleapaindegia, MAXI EROSKI, MENDI KIROLAK, MIKEL altzariak, NAIA arropa denda, NERE KABA taberna eta jatetxea, OGOÑO arrandegia, OJANGUREN elektrotresnak, OLGA umeentzako arropa, OMAETXERABARRIA farmazia, OMAGO dastalekua, OMAGO dietetika, OMAGO kafeategia, PARAPHIBNALIA jantzi denda, PEDRO BILBAO gozotegia, PEPIN urdategia, PODIUM gailuak, QUOKIA arropa eta oinetak, SAN JUANIBARRIA TEIBAZA, SAN JUAN loteria, SANDALIO harategia, TANDEM antenak, TACS arropa denda, TECNIRUEDAS GERNIKA, TODO DESDE 100 bazara, TOTORIKAGUENA jantzi denda, TRENBIDE arropa denda, TWENTE taberna, TXANKAN arropa denda, UGALDE ortopedia, UMEAK umeentzako guztia, URANGA uleapaindegia, URDAIBAI artekariak, USKOLA baserri tresnak, VIT-SEC indategia, ZALLO harategia, ZALLO BARRI jatetxea, ZARRA prentsa-aldizkariak, ZIMELA jatetxea, ZUBIALDE okindegia, ZUGATZA eskaratzeko altzariak, ZURICH aseguruak.

## ENPRESAK

ABANZA Aholkularia, AITA VILLASANTE Udal Euskaltegia, AKELARRE Ostatu, ALGELEK SL, AMUNATEGUI - ZALABARRIA Abokatuak, APRAIZ Aseguruak, AREZA eraikuntzak, ARRONATEGI Pinturak, ARROYO Banaketak, ARZANEGI Arkitektura, ARZANEGI OAR Abokatuak, AUKA BIDAIK, CALZADA egoitza, CASMARCO SL, COR SL Aholkularia, DISBARAN Banaketak, EXCLUSIVAS GERNIKA, ILIUNZAR, GAKOAK, GERNIKA INMOBILIARIA, GERNIKA KIROLEKUA, GONDRA ABAROA Aseguruak, GORRA Bultzaritza, HIRULUGER Inmobiliaria, IKER EGOA Aholkularitza eta Aseguruak, INTXAUSTI SA Eraikuntzak, IRABAZAL Ardatuegia, IZAGIRRE Eraikuntzak SA, JOSE LUIS Kristaldegia, LA CAIXA, LEONCIO FERNANDEZ Abokatuak, LUR Inmobiliaria, MACIAS Inmobiliaria, MALLUKIZA Aroztégia, MRW, OIGA Informatika Zerbitzuak, SAN ISIDRO KOOPERATIBA, SANJO INOX Talerra, SENDAGAI Osasun Zentrua, SERENOR, SORKUNDE Finka Administrazioa, STUDIO MAPPING diseinua eta komunikazioa, TALLERES SANJO talerra, TTIPI-TTAPA, URDAIBAI Bidaiak, URRUTIA Abokatuak, URRUTIA Asesoria, VITALICIO Aseguruak, ZAINDU Fisioterapia zentroa.

## ALKARTEAK

ADES ALKARTEA, AGIRI ALKARTEA, AIURI, ALARGUNEN ALKARTEA, ALLENDE GURASO ALKARTEA, ANDRA MARI KORALA, ARKUPE PILOTA TALDEA, ARANO KULTUR ALKARTEA, ASINOC, AVIFES, BAKE LEKU, BAKEAREN ARBOLA, BARRUTIALDE ANTZERKI TALDEA, BUSTURIALDEAN EUSKARAZ, EHIZTARI, ARRANTZALE ETA TIRATZAILA ALKARTEA, ELAI ALAI DANTZARI TALDEA, ELIZBARRUTIKO KARITAS, EMAKIDE, ETSIAIK MAHA TENIS TALDEA, GERNIKAKO EMAKUME ALKARTEA, GAUDEAMUS KORALA, GAZTEAK KULTUR TALDEA, GERNIKA FUTBOL SALA, GERNIKA OFF ROAD, GERNIKA RACING ALKARTEA, GERNIKA SASKI BALOI ALKARTEA, GERNIKA SPORTING FUTBOL TALDEA, GERNIKA-LUMOKO MERKATARI ALKARTUAK, GERNIKAKO ARKU-TIROKETA ALKARTEA, GERNIKAKO ARTE ESKOLA, GERNIKAKO BERTSOLARI ESKOLA, GERNIKAKO EKOLOGI LAN TALDEA, GERNIKA GOGORATUZ, GERNIKAKO RUGBY TALDEA, GERNIKATIK MUNDURA, GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA, GOIZALE, GOIZEKO IZARRA GAZTE TALDEA, HILARGI LORE, IDEASUR, IEUP GAZTEEN ALKARTEA, JAI ALAI, KOSNOAGA GAZTE TALDEA, KOSNOAGA IGERIKETA TALDEA, MAKATZ ITURRI TALDEA, MAKAZAGA MUSIKA ALKARTEA, MUSIKEDER, ODOLKIDEAK, OSTARI ABESBATZA, S.D. GERNIKA KLUBA, SOCIEDAD CICLISTA GERNIKESA, TURDAIBAI, TIRIS GERNIKA SAHARAREN ALDE, URDAIBAIKO PERRETIXOZALEAK ALKARTEA, URDAIBAIKO RUGBY ESKOLA, URDAIBAIKERS MOTORZALEEN ALKARTEA, ZANTZOA EUSKAL KULTUR ALKARTEA, ZINE KLUB KULTUR ALKARTEA

## BARRIKETAN

### Idoia Lotina eta Idoia Ateka STUDIO MAPPING

1.- Noiz hasi zirie kanpaina parte hartzen?  
Iaz sartu ginan Geure berbie Euskeraz kanpaina.

2.- Zelan bururatu jatzuen hitzarmena sinatzea?  
Udaletxera joan ginan proiektu bat aurkeztera eta Euskera Zerbitzuko langile batek Gernika-Lumoko enpresei euskerearen erabilera handitzeko laguntza eskeintzen jaken kanpainaren barri emon euskun. Interesa euki gendun, eta handik denbora gixira, Euskera Zerbitzuko teknikari bat geuregana etorri zan hitzarmenaren nondik norakoak azaltzera. Erabat ados gengoza ikusita, hitzarmena sinatzea erabagi gendun.



3.- Zeintzuk dira ordutik hona egin dozuezan aldaketak?  
Bezero euskaldunei lehenengo berba euskeraz egiten deusegu beti, eta inguruko Udaletarako aurrekontuak be, euskeraz egiten doguz orain.  
Bezero euskaldunei euskeraz egiteak abantaila haundiak ekarri deuskuz. Aipatu gurako geunke Bidasoako Berako (Nafarroa) ikastolarako aurrekontua aurkeztu gendula orain dala gixti, eta proiektuari jagokonez, Kataluniako beste enpresa batek parekatuta egon arren, gu aukeratu ginduezan euskerea erabiltzeari. Beraz, argi dogu enpresa munduan be euskerearen erabilera zerbitzu osagarri moduan ulertu behar dogula.

4.- Zein zailtasun izaten dozuez eguneroko beharrea?  
Geuk sortzen doguzan dokumentuetan ortografia akats dezente egiten doguz eta badaezpada itzulpen zerbitzua erabiltzen dogu zuzenketak egiteko. Horrezaz gain, bezeroek azar batzuen inguruan gauza teknikoei buruz berba egiteko zailtasunak eukiten doguz batzuetan.

5.- Bezeroek euskeraz egiten deuse?  
Bezero euskaldunek hartu-emonak euskeraz izaten doguz. Esan behar dogu gero eta euskera gehiago erabiltzen dogula, baita geure artean be.

## Errotulu barriak

Aurton aldaketa bat egin dogu, kartel barriak atara doguz. Udako merkealdian banandu geuntzezan merkatariei eta oso harrera ona izan eben. Kartel elektroestatikoa dira, eta behin eta berriz erabiltzeko pentsata dagoz, ondo mantentzen dira merkealdi batzutatik besteetara. Hona hemen kartelak:

